

# Sorbus aucuparia

## OTSALIZARRA SERBAL DE CAZADORES

Normalean 10 m gainditzen ez dituen zuhaitza. Begiak ilaundunak, gutxi likatsuak edo batere ez. Hostoak inparipinatuak, 5-8 foliolo paredunak; hauek luzangak, ertzean zerratuak, gainaldean berde mateak eta azpialdean argiagoak. Loreak muturreko korinboetan, oso usaintsuak, petalo zurikoak eta 3-4 estilo tentedunak. Fruitua baia itxurako poma da, azal gorri leunekoa eta zapora mikatzekoa. Zelula petreorik ez du, edo edukitzekotan oso gutxi, eta karpeloen paretak papilazeoak dira. Neguaren zati handi batean zuhaitz gainean irauten dute, multzo ikusgarrietan, eta hegazti fruitujaleen elikadurarako oso garrantzitsuak dira.



*Arbol que normalmente no supera los 10 m. Yemas pubescentes, poco o nada viscosas. Hojas imparipinnadas, con 5-8 pares de foliolos oblongos, con el margen aserrado, de color verde mate en el haz y algo mas claro en el envés. Flores en corimbos terminales, muy olorosas, de pétalos blancos y 3-4 estilos erguidos. El fruto es un pomo con apariencia de baya, con la corteza lisa de color rojo vivo; contiene pocas o ninguna célula petrea, las paredes carpelares son papiraceas y es de sabor ácido. Permanecen parte del invierno sobre el árbol formando ramilletes muy llamativos, siendo de mucha importancia en la alimentación invernal de las aves frugívoras.*

### Loraketaren eta fruitua ematearen garaia / Floración y fructificación

Maiatzetik ekainera; fruituak iraila eta urrian heltzen dira.

*Entre mayo y julio; los frutos maduran en septiembre y octubre.*

### Bizilekua / Hábitat

Pagadi eta hariztiak bezalako baso hostoerorkorretan, ale bakanetan edo zuhaitz unada txikiak eratuz, edo baita klima hezeko harkaiztietara igota ere, kare gabeko lurzoruetan hobeki.

*Bosques de caducifolias como hayas y robles, en pies aislados o formando pequeños rodales, e incluso encaramado a algunos roquedos en las zonas de clima húmedo, mostrando preferencia por los suelos desprovistos de cal.*

### Banaketa geografikoa / Distribución geográfica

Europako zatirik handienean eta Asiako eta ipar mendebaldean banatua dago, zenbait subespezietan dibertsifikatua. Euskal Herrian, eragin atlantikoko aldean aurkitzen da, behin ere ez oso ugari, eta hegoalderuntz urrituz doa, klima mediterraneo nabarmeneko lekuetan erabat desagertu arte.

*Se extiende por la mayor parte de Europa y Asia boreal y occidental, diversificada en varias subespecies. En el País Vasco se halla repartido por la zona de influencia atlántica, nunca muy abundante, enrareciéndose hacia el sur hasta desaparecer en las regiones de clima mediterráneo más acusado.*

### Erabilera eta bertuteak / Usos y virtudes

Apaingarriztat landatuta izateaz gainera, bere fruituak txoriak ehizatzeke erabili izan dira, eta hortik bere izena (aucupor; txoriak ehizatu). Egurra, bere gogortasunagatik, marruskadura handia jasan behar duten piezetarako erabili izan da. Azal eta hostoak tanino ugari dute eta larruak ontzeko erabili izan dira, fruituek, taninoez gainera, C bitamina ugari dute, eta hori dela eta gaitasun astringenteak eta antieskorbutikoak dituzte, eta mermelada eta pattarrak egiteko erabili izan dira.

*Además de cultivarse como ornamental, se han utilizado sus frutos como cebo para cazar aves, de lo que proviene su nombre (de aucupor: cazar aves). Su madera ha sido usada por su gran dureza en piezas expuestas a frecuentes roces. La corteza y las hojas tienen un contenido elevado en taninos y se han empleado para curtir; también los frutos son ricos en taninos y vitamina C, por lo que tienen propiedades astringentes y antiescorbúticas, sirviendo para la fabricación de mermeladas y aguardientes.*